

Irakaskuntza

Frantsesa eta gaztelania, atzerriko hizkuntza gisa

■ ■ ■ Iparraldean ikasleen erdiek baino gehiagok ikasten dute gaztelania, ia beti bigarren hizkuntza gisa

liteke jadanik. Joera hori, gainera, Nafarroako Iparraldeko herrietan ere nabari da.

Haur eta Lehen Hezkuntzaren kasuan, Gipuzkoan esaterako, alemanaren eta frantsesaren eskaintza parekatua izan zen iazko ikasturtean. 600 bat ikaslek frantsesa ikasi zuten, eta 500 batek, berriz, alemana.

Iparraldean gaztelania indartsuago

Ipar Euskal Herrian gaztelaniaren irakaskuntza Hegoaldean frantsesarena baino dezente indartsuago dago, EGUNKARIAK Hezkuntza Nazionalaren Paueko Ikuskarpen Akademikotik lortu dituen datuen arabera.

Horrela, datu horiek diotenez, Zuberoko, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko eskola primario publikoetako haurren %36k gaztelania ikasten dute.

Kolegioetan (publiko nahiz pribatueta) ikasten duten neska-mutikoen erdiek baino gehiagok ikasten du gaztelania. Datu horiek, gainera, handiagoak dira Pirinio aldeko herrietako eskoletan. Haietan ikasle gehienek ikas-



Ziburuko lizeoan ikasle guztiek ikasten dute gaztelania eta ingelesa 14 urte dituztenean.

ANGELA MEJIAS


ten dute gaztelania, nahiz eta atzerriko lehen hizkuntza ingelesa izaten den gehienetan.

Ikastetxe bakoitzak aukera dezan egokien ikusten duen atzerriko hizkuntza da eremu publikoan Gobernuak duen irizpidea. Horregatik, gerta liteke herri bereko eskola publikoetan ez ematea atzerriko hizkuntza bera. Hendaian, esaterako, Hondartzako Eskolan gaztelania da atzerriko lehen hizkuntza; Tren Geltokiko Eskolan, berriz, ingelesa.

Iñaki Petxarroman
DONOSTIA

Irakaskuntza

FRANTSESA ETA GAZTELERA (1998-99 ikasturtea)



ITURRIA: Eusko Jaurlaritza, Pirinio Atlantikoetako Departamendua

J. APEZTEGIA

puntuz puntu


Zenbait datu eta bitxikeria

■ EUSKALDUNON EGUNKARIAK bildutako datuen artean, badira nabarmentzen diren batzuk. Hona horietako batzuk:

Alemana, ia-ia frantsesaren pare • Gipuzkoako haur hezkuntza eta lehen hezkuntzan 655 haurrek ikasten dute frantsesa, haurren %1 inguruk. Alemana ia 500 haurrek ikasten dute; beraz, ia-ia frantsesa ikasten dutenak beste.

Iparraldeko mugako herrietan, espainiera • Hego Euskal Herriko mugako herrietan gertatzen ez den joera bat nabari da Ipar Euskal Herriko mugako herrietan. Alegia, herri guztietan ikasleek espainiera ikasten dutela, betiere atzerriko bigarren hizkuntza gisa.

Ingelesak ordezkatzuta aurtan • Badira Ipar Euskal Herriarekin mugagabeko egiten duten Hegoaldeko zenbait herritako ikastetxe aurtan arte frantsesa irakatsi izan dutenak bakarrik, atzerriko hizkuntza gisa: Irungo Dumboa eta Iza-bako Herriko Eskola esaterako. Biak, administrazioaren aholku edo eskariari jarraiki, frantsesa laga eta ingelesa hasi dira ematen aurtan.



GARI GARAIALDE

Labiaga ikastolako ikastalde bat.

Ecole St. Joseph • Baigorri

«Baigorriko ikastetxeetan ingelesa da atzerriko lehen hizkuntza»

► Jier Andreak Baigorriko St Joseph es-

kola pribatuko zuzendariak azaldu duenez, Baigorriin dauden bi kolegioetan ingelesa da atzerriko lehenengo hizkuntza. Hala ere, ikasleak 14 urterekin hasten dira gaztelania ikasten. Ingelesa, berriz, 8-9 urterekin hasten dira ikasten ume batzuk.

Guadalupeko Ama • Hondarribia

«Letren adarrekoek irakasgai osagai gisa ikasten dute frantsesa»

► Hondarribiko ikastetxe horretan ingelesa da derrigorrezko atzerriko hizkuntza. Frantsesa irakasgai osagarri gisa irakasten dute, DBIko 4. mailatik aurrera. Alabaina, letren adarra aukeratzaren dutenek bakarrik dute frantsesa ikasteko aukera, Jose Carlos Carrasco zuzendariak esan digunez.

Ecole de la Gare • Hendaia

«Gure eskolan ingelesa irakasten da bakarrik»

► Ingelesa da eskola publiko horretan

ikasleek ikasten duten atzerriko hizkuntza bakarra. Alabaina, ez da Hendaia eskola publiko guztietan dagoen jarrera. Izan ere, atzerriko zein hizkuntza irakatsi nahi duen eskola bakoitzak aukeratzea da Administrazioaren apustua. Horrela, Ecole de la Plage Hendaia beste eskola publikoan espainiera irakasten dute.

Dumboa ikastetxea • Irun

«Jaurlaritzak eskatu zigan ingelesa irakasteko»

► Iaz arte frantsesa bakarrik irakasten zieten umei Irungo herriko Dumboa ikastetxean. Betidanik hala zen. Baina, Marije Fernandez zuzendariak adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzak aholkatu eta eskatuta, ingelesa ematen hasi dira aurtan, eta frantsesa alde batera utzi. Horrela, urte honetatik ikastetxe horretan hasten diren umeek ez dute aukerarik izango frantsesa ikasteko. Irunen frantsesa askoz ere gehiago entzuten da ingelesa baino.

Berako Ikastola • Bera

«Lautik batek ikasten du frantsesa, gutxi gorabehera»

► Ikastolan ematen den hirugarren hizkuntza ingelesa da, eta lehen hezkuntzan hasten dira umeak ikasten. DBHn frantsesa hautatzeko aukera dute, eta %25 batek hautatzen du Joxan Oiz zuzendariak dioenez. «Hemen, egia esan, ikasleek ez dute interesik izaten frantseseko titulua ateratzeko», dio.

Izabako Herriko Eskola • Izaba

«Aurtan hasi gara ingelesarekin, guraso eta Gobernuak eskatuta»

► Iazko ikasturtea arte frantsesa ematen zuten Izabako Herriko Eskolako umeek. Baina, aurtan, gurasoek eta administrazioak eskatuta, frantsesa bazterrean laga eta ingelesa hasi dira ikasten Izabako umeek eskolan. Ondoren, Erronkariko eskolan DBH egiten hasten direnean frantsesa aukeratzeko eskubidea dute, hautazkoa baita.